


VILLA ETXEGOIEN
D MAILA

EGIA GALTZADA 56



Lukas Aldai, 1919.

Deskribapena

Etxeak baserri baten ohiko estalkia dauka, baina fatxadek ez dute baserri batekoekin inolako zerikusirik. Hori beharrean, gehiago ikusten dugu lengoaia klasizista azpaduretan, bao buruetan, arkutxo erdizirkularretan, are balkoi nagusiko egitura eta forja-lanetan. Kantoietako kateadurek eta inpostek lerro berari segitzen diote. Xehetasun erregionalista txiki bat baino ez dugu ikusiko, bisera azpiko horma pikoko adreiluan ikusten den material aldaketa. Etxearen profilak erdisotoa, beheko solairua, lehena eta teilatupekoa dauzka, bolumen trinko baten barnean eta orientazio nagusi batez; beste aldeetako bao banaketak ez du aurrealdeko horma pikokoaren antzik.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, adreiluzko teilatupekoa, zurezko elementuak, balkoiko forja-lana eta estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.